



Ehun urtean lehen aldiz euskara gehiago entzuten da Tolosako kaleetan, Galtzaundik egindako azterketaren emaitzen arabera. JOSU ARTUTXA DORRONSORO

Gaztelera baino gehiago entzuten da euskara

Pasa den urtean Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosan eginiko hizkuntzen erabileraren kale neurketak erakusten du euskararen erabilera (%49,1) gaztelaniaren (%48,5) gainetik dagoela // 2

Udalak ez daude ados foru funtsa %20 murrizteko erabakiarekin

Gipuzkoako 55 alkatek, tartean Tolosaldeko 24 herrietakoek, gutuna bidali dute, erabakia atzera bota dezatela eskatuz // 4

«Beste gaixotasun bat badago beldurra areagotzen da»

MAIDER SIERRA
PSIKOLOGOA

Minbiziaren Aurkako Elkartek tabakoaren kontsumoa murrizteko lehiaketa bat egingo du // 5

Tolosak mugakide dituen herrietatik ibilbidea

Tolosak herri askorekin egiten du muga, eta horien inguruan lau etapatan banatutako ibilbidea ere badago // 3

ATE IREKI telematikoa

Maiatzak 20
asteazkena
17:00etan
eta
18:00etan

01 ^{3. urteko} OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

- Elektrizitatea eta Elektronika
- Elementu Metalikoen Fabrikazioa

Prestakuntza lanbidea etorkizuna

02 ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak (eskaintza partziala modalitatean)

03 GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Animazio Soziokulturala eta Turistikoa
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

☎ 943 55 19 58

✉ idezkaritza@hernanilah.eus

📍 Karmelo Labaka 7, 20120 Hernani

HERNANILHII



www.hernanilah.eus

HZ HERNANI LANBIDE HEZIKETA

GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII
CIFP INNOVACIÓN SOCIAL

Josu Artutxa Dorronsoro

1985. urtetik, urtero egiten da hizkuntzen erabileraren kale-neurketa Tolosan. Hizkuntzen Erabileraren 2019ko kale-neurketaren emaitzak berriki aurkeztu dituzte Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosako Udalak. Oraingoan, 3.246 elkarrizketen eta 8.647 hitzunen informazioa bildu da. «Jasotako datuen bolumen handiak, fidagarritasun estatistikorako baldintzak bermatzea ahalbidetzen du», adierazten dute Galtzaunditik.

Iazko kale-neurketak emaitza esanguratsua utzi du: euskararen kale erabilera (%49,1) gaztelaniarenaren (%48,5) gainetik erregistratu da, hau da, gaztelania baino euskara gehiago entzun da Tolosako kaleetan. Bada, mende batean lehenengoz gertatu da. «Jakina da kale-neurketa 1985. urtetik aurrera egiten dela Tolosan, baina ehun urtean lehen aldiz horrela izan dela baieztatzeko moduko ebidentziak ditugu», diote Galtzaunditik.

Espainiako gerra ondorengo lekukoek aitortu izan dute euskara oso gutxi entzuten zela Tolosako kaleetan garai hartan. Ordutik 1985 bitarte, euskararen presentzia oso eskasa izan zen herrian. «Tolosarren lekukotza ugari daude bilduta hainbat liburutan eta ahozko ondarea biltzen duen Ahotsak proiektuan, eta guztietan azpimarratzen da gerra aurreko urteetan eta ondorenean euskarak ia presentziarik ez zuela Tolosako kaleetan».

Gerra aurreko egoeraren lekukotzak ere badaude. «Esanguratsuenetakoa, Gorriti plazan sortu zen Ikastola sortzeko 1921eko informazio orrian topatu daiteke. *Euskera maite al dezu?* izenburua zuen, eta bertan aipatzen da, hamabost urtetik beherakoan artean jada ez zela euskararik aditzen: «Eta Euskera maite dezularik, ez al-dituzu beñere malakoak begitara irten-naian nabaitu, Tolosa'ko kalean, urte gutxi barru, euskarak beruntz daraman joaira ikusita?... Tolosa'ko kalean, euskera aurren ezpañetatik igesi dijoa». Ondorioztatu genezake, beraz, gaztelania jada nagusi zela tolosarren artean; gerra ondorengo hizkuntza praktikak hori berresten dute».

GAZTEAK, BEHETIK GORA

Behin erabileraren diagnostiko zehatza eginda, zenbait ondorio nagusi ateratu dituzte. Euskararen kale-erabilera 20 puntutan berrindartu da Tolosan azken 34 urtetan. 1985ean, %29koa zen eta iaz, berriz, %49,1ekoa. Aipa-



Haurren %70ak, gazteen %63k, helduen %50 inguruk eta adinekoen %29k hitz egiten du euskaraz herriko kaleetan. J. A.

Ehun urtean lehen aldiz, gaztelera baino euskara gehiago entzun da kalean

Iaz Tolosan egindako hizkuntzen erabileraren kale-neurketako emaitzak aurkeztu ditu Galtzaundik. Datuen arabera, %49,1ekoa da euskararen erabilera.

tzekoa da, 1981ean, Tolosako biztanleen %51 euskalduna zela. 2016an, berriz, %71 izatera pasa ziren. Beraz, kale-erabileran ez ezik, ezagutzen ere 20 puntu egin zuen gora, 35 urtetan.

Egindako azterketak xehetasun ugari biltzen ditu. Horrela, adin-tarte desberdinen artean alde nabarmenak ikus daitezke. 1985etik, belaunaldien arteko euskararen kale-erabileraren sailkapena erabat aldatu da. Gazteak azkenak izatetik bigarrenak izatera igaro dira. Duela 34 urte, adinean helduenak ziren kalean euskaraz gehien aritzen zirenak; orain, belaunaldi gazteenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.

Gaur egun, haurren %70ak hitz egiten du euskaraz Tolosako kaleetan. Gazteetan %63k, heldu-gazteetan %57k, heldu-nagusietan %44k, eta adinekoetan %29k. «Bilakaera horretan azpimarratzekoa da 35 urtetik gorakoen eta beherakoen artean dagoen aldea: 35 urtez azpikoek %65eko erabilera erregistratu dute; 35 urtez gainekoei, berriz, %39ko erabilera neurtu zaie».

Neurtutako lehen urteetan, igoera handia izan zuen haurren erabilerak. Azken urteetan, aldiz, apaldu egin da igoera. Gazteen erabilerak nabarmen egin du gora azken bost urteetan, eta helduek hazkunde erritmo konstantean jarraitzen dute. 2014az geroztik, adinekoen erabileran beherakadak geldialdia izan du, eta hori lehen aldiz gertatu da 90eko hamarkadatik hona.

Berrindartu egin da euskararen kale-erabilera Tolosan. %29tik %49,1era igo da azken 34 urteetan.

Haurrak eta helduak batera daudenean, eta haurrek elkarrizketan parte hartzean erabiltzen da gehien

«Haurren presentziak zeresan handia du euskararen kaleko erabileran», adierazi dute Galtzaunditik. Erabilera daturik altuenak (%80) haurrak eta helduak batera daudenean, eta haurrak elkarrizketan parte hartzen

duenean erregistratzen dira. Baxuenak, berriz, nagusiak haurrak parean ez dituztenean jasotzen dira (%36). «Nagusien kasuan, haurren presentzia soilak %57ra igotzen du erabilera», nabarmentzen dute elkartetik.

TALDE-LANAREN ARRAKASTA

Tolosako kale-neurketen emaitzen bilakaerak hizkuntzak kalean duen presentziaren analisia egiteko «sekulako garrantzia duela» adierazi dute Galtzaunditik. «Urtez urteko emaitzetatik harago, eboluzioak egoeraren azterketa fidagarria egitea ahalbidetzen du. Azken urteetako berrindartzearen atzean, modu desberdinetara bere aletxoak jarri duten herritarren lana dago».

34 urteko eboluzio honetan, herriko ikastetxe guztietan D eredua ezartzeak «garrantzi berezia» duela diote. «Aldaketa horren atzean, ikastetxeek gain, eredu horren alde apustu egin duten guraso euskaldun, erdaldun eta irakasleak daude, baita aisialdian eta gazteen inguruko eskola orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera norma-

lizatzen saiatu diren guztiak ere. Zer esanik ez, garai batean gau eskoletan, eta gerora euskaltegietan, euskalduntzeko ahalegina egin duten ikasleak zein horretan jardun duten irakasleak. Tolosarrek euskalduntzean egindako esfortzuaren ondorio ere bada lorpen hau».

Bestetik, Tolosako Udalak eta bereziki udaleko euskara batzordeak eta zerbitzuak egindako lana ere lorpen honen parte dela aitortu dute. «Martxan jarri ziren momentutik euskararen alde hartutako neurriek eta garatutako egitasmoek ere bultzada nabarmena eman diote hizkuntzari, gainerako erakunde desberdinen inplikazioarekin batera».

Aipatutakoez gain, 90eko hamarkadatik sortu diren euskarazko komunikabideak ere eboluzioaren indargunetzat hartzen dituzte. «Inguruaz zein munduaz euskaraz informatzeko atak ireki dizkigute euskaldunei, eta merkataritzan zein lan-munduan euskararen aldeko urratsak eman dituztenek ere euskaragure bizitzako eremu gehiagotan bermatzea ahalbidetu dute».

«Lorpen kolektiboa da Tolosako kaleetan euskararen presentzia nabarmen areagotzea», ondorioztatzen dute euskara taldeak. «Euskararen aldeko urrats sendoak eman dituzten herriko talde, elkarte, mugimendu sozial, sortzaile zein norbanako eta euskaltzaleen lanaren fruitua da. Eta azken emaitzek argi erakusten dute lorpen horretan parte hartu duten eragile eta norbanako guztien aletxoak zein garrantzitsua izan den».

EUSKARA BIZITZAREN ERAGILE

Tolosako Udalak, bere aldetik, euskararen nortasuna indartzen eta balioan jartzen jarraituko du, «kalean eta etxean euskararen erabilera sustatzeko urratsak emanez, Tolosa euskararen arnagune izan dadin». Iaz onartutako Euskararen dekretu berriak, udalaren funtzionamendua euskaraz ahalbidetzeaz gain, euskararen erabilera lehenetsi eta herritarren eskubide linguistikoak babesten ditu, lan esparruan nahiz herritarrekin harremanetzeko garaian euskararen erabilera bultzatu asmoz.

Aurrera begira, bide berriak jorratzea «ezinbestekoa» izango dela diote, «herritarren hizkuntza ohituretan eragiteko, arlo pribatu zein publikoan, euskara izan dadin gure bizitzaren eragile. Beraz, funtsezkoa izango da hizkuntza politika eraginkorrak eta arlo desberdinetako ekimenak garatzen jarraitzea».

Konfinamenduan herritarrak ezin izan dira udalerriz mugitu kirola egiteko eta horrek mugak non ote dauden galdetzea eragin du. Ondorengo lerroetan hainbat pista ematen ahalegindu da 'Tolosaldeko Ataria'.

Zein dira herriaren mugak?

Joxemi Salzar Tolosa

Izaskun Tolosa edo Ibarra da? Zein da Tolosaldeko mendirik altuena? Eldua Elduaingoa da? Egun hauetan Aldabara joan daiteke errepidez? Non dago Ugane auzoa? Horrela-ko galderak denon ahotan dabil-tza itxialdiko egun berezi haue-tan, herriko mugetatik ateratzea debekatuta egon denez.

Iragan astean ondoko herrira joateko baimena izan dugu, kirola egiteko. Bada Tolosak adibidez, herri askorekin egiten du muga, iparraldetik hasi eta ordulariaren orratzen kontrako norabidea jarraituz: Hernialde, Alkiza, Albiztur, Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Altzo, Amezketak, Azkarate (Araitz, Nafarroa), Lizartza, Belauntza, Ibarra, Villabona, Irura eta Anoeta. Enirio-Aralar mankomunitatearekin ere muga egiten du puntu batean. Beraz, ibiltzeko esparrua asko zabaltu zitzaigun.

Eta zein dira herriaren mugak? Hasteko herri guztietako mugak historian zehar aldatu egin direla esan behar da, hainbat gorabehera medio. Adibidez, bi mende eta erdi inguruan Andoain eta gaur egun Tolosaldea deitzen duguneko herri gehienak (Bidania-Goiatz eta Larraul izan ezik) Tolosaren barruan izan ziren, babes bila. Herri gehienetan hala izan zen 1374tik 1615ra, baina batzuk XIX. mende arte izan ziren Tolosa. Bestalde, Tolosak auzo batzuk erosi zituen: Aldaba Gaztelako Santxo IV. erregeari 1290. urtean, Aldaba txiki 1323. urtean eta Bedaio Juan Martinez de Berastegiri 1544. urtean.

Mugarriak izan dira betidanik herri arteko mugak markatzeko sistema. Eta garai batean udal

ordezkariak mugarri horiek urtero bisitatzeko ohitura izaten zuten. Gaur egun mugarri asko galduta edo desagertuta daude, baina oraindik gelditzen dira batzuk zutik.

TOLOSALDEKO MENDIAK

Zein dira gure eskualdeko mendi nabarmenenak? Tolosak 37,39 kilometro karratu ditu azaleran, horien herena Bedaion, uharte modukoa egiten duena, ez baitu Tolosa ukitzen, eta horrela Nafarroarekin egiten du muga, Araitz

Tolosak 15 herriekin egiten du muga, horietako bi eskualdez kanpokoak

bailarako Azkarate herriarekin Zarateko lepoaren inguruan. Geografikoki urrun egote horrek herri izaera ematen dio Bedaiori. Bertan dago Tolosako eta Tolosaldeko tontorrik altuena, Artubi (1.254 m). Balerdi mendia (1.193 m) ere herriko mugetan sartzen da. Elduarekin gauza bera gertatzen da, Berastegiko auzoa da, baina ez ditu bere mugak ukitzen, Elduainenak baizik.

Aldaba auzoa ere aparte samar gelditzen da, baina badu lotura geografikoa mendiz, Aldaba txikitik barrena, Intxur mendia (765 m) ingurutik. Aldabara errepidez joan ahal izateko, Alegiatik pasatu behar da derrigorrez. Aldabako ertz batean aurkitzen da Ugane auzoa, oso txikia, eta Ikaztegietatik oso gertu. Hirigunetik bereizita dauden beste auzoak dira Aldaba txiki, Auzo txikia, Urkizu, San Esteban, Montesku, San Blas (Amaroz hor sartuko litzateke) eta Santa Luzia. Mugimenduak mugatuta ditugun egun hauetan, auzo horiek sekula baino bisitari gehiago ari dira

Tolosaldeko 28 udalerriak biltzen dituen mapa. ATARIA

izaten, oinez edo bizikletaz inguratuta, auzo horiek ezagutzeko aukera polita baita.

Bedaion aipatutako mendiez gain, Uzturre (730 metro, gurutzea 662 metrora), Belabieta (699 metro) eta Herniozabal (1.011 metro) izango dira tolosar gehien jasotzen dituztenak. Baina kontuz, horietara joateko herriko mugetatik atera gaitezke-lako. Uzturrera joateko bide erabiliena Izaskundik barrena da, baina Ibarra dela kontuan hartu behar dugu, eta baita bideko zati handiena ere, Peciña eta Txirritaren oroitarrak dauden langaraino. Santa Luzia auzotik joanez gero ez dago arazo hori. Uzturre inguruan daude Belabieta, honek ere irla txiki bat osatzen duena, eta Loatzo (633 metro), Irurako lurretan jada. Belabieta-



1956ko 'Libro-Homenaje a Tolosa. VII Centenario 1256-1956' liburuako mapa.



tik gertu dago Urdelar (859 metro). Herniozabalgo tontorretik metro gutxira aurki daiteke Albiztur-Alkiza-Tolosa arteko mugarrak. Hernialdetik edo Montesku eta Urkizutik barrena igo daiteke. Hernio (1.078 metro) ez dago handik urruti. Eskualdeko beste mendi ezagunak dira Erroizpe (edo Larte, 811 metro) Leaburu, Belauntza, Berastegi edo Gaztelutik igo daitekeena; Otsabio (801 metro), Altzo edo Lizartzatik igotzen dena; Berastegitik igotzen da Ipuliño (934 metro) eta San Lorenzora (808 metro); eta Bidania-Goiatzetik Illaun (826 metro) eta Urrakira (825 metro).

TOLOSAKO MUGEN IBILBIDEA

Tolosako muga inguruan ibiliz, lau etapatan banatutako ibilbidea proposatu zuen Pedro Elosegik ikertzaileak duela hamarkada batzuk. Bedaio ez zuen hor sartu, beste etapa bat gehiago beharko luke. Lehen etapa Hernialdeko bentatik abiatuta, erreka jarraituz Herniozabaleraino igo eta Urkizura jaitsiko litzateke, eta handik Albizturko errepideraino, Errondosoro baserrira. Kontuan izan Pasaban eta Kanguros lantegiak Tolosa direla, hor baitago muga Albizturarekin. Duela urte batzuk izan zen hor muga aldaketa bat, enpresa horiek eskatuta.

Bigarren etapa Errondosoro baserritik abiatuta Intxur mendira igotzen da, tarte batean Santa Mariako bidea jarraituz. Alda-

ba txiki eta Aldaba auzoetan gabilta. Ugaran errekatik Ikaztegi-tara jaisten da muga, Berasibia baserrira. Inguru horretan dago Ugane auzoa, ezezaguna tolosar gehienentzat. Kuriositate bezala, Panelfisa eta Caravanas Tolosa enpresak ez daude Ikaztegi-tan, Tolosan baizik. Aldaba basotik igo eta Arzabalza baserrira jaisten da ibilbidea, muga jarraituz.

Hirugarren txangoa Arzabalza industria-gunetik Ollaun mendira (telebista errepetidorea dagoen lekua) igo, Altzoko muga, eta Txarama auzora jaisten da, Leaburuko auzoa. Araxes ibaiak egiten du muga zati batean. Hortik gora hartu behar da, Eule etxeberri baserri aldera. Handik Apattarrek ikusten da, muga egiten duen beste erreka. Kanposantu eta Apattarrek inguruetan gabilta. Ibarrara jaitsi, Zumardiaundira, eta Benta txabal etxak egiten du Tolosa-Ibarra muga.

Laugarren eta azken etapa Ibarratik gora, Etxeberri-txu eta Elorbe baserrietatik, Moja tontor eta Asuncion klinika baino lehen hartu Irañeta baserrira, gorago Artetxe baserrira. Uzturre aldera Agoniako aldapatik doa muga. Uzturretik Belabietaraino jarraitu, Berrobi eskuinera utziz, eta buelta emanda Irurako mugetatik, Artxiapiagako langatik, itzultzen gara Santa Luzia auzora, Tolosari itzulua osatuz.

Itxialdiko egun hauetan Tolosaldean zehar bide berriak ezagutzeko aukera politak badaude.

Gutun bidez proposamen zehatza bidali diote hogeita lau udalek foru aldundiari

Gipuzkoako Foru Aldundiak %20 murriztea erabaki du Udal Finantzaketarako Foru Funtza; udalak ez daude ados, eta aldebakarrez erabaki izana salatu dute

Eneritz Maiz Etxarri

Udal Finantzaketarako Foru Funtza %20 murriztea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gipuzkoako 55 alkatek gutun bateratua bidali diote «erabakia atzera botatzeko» eskatuz, Jaber Larrañaga Ogasun foru diputatuari. Tartean dira Tolosaldeko 24 herri.

Garrantzi handiko erabakia da, bereziki herri txikientzat, diru sarreraren %60 inguru funts horretatik lortzen dutelako. Gipuzkoako 65 alkatek -EH Bildu, PSE-EE eta independenteak- zuzenean adierazi diote beren «desadostasuna» aldundiari. Hasteko, erabakia hartzeko udalekin ez kontatu izana salatu dute alkate guztiek. Erabaki hori hartu aurretik udalekin hitz egin behar zutela uste dute.

Honen aurrean, Gipuzkoako 55 alkatek bat egin dute, eta aldundira proposamen zehatza bidali dute. Tolosaldeko hogeita bi udaletatik bidali dute alkateek gutuna. Gehiengoa EH Bilduren udalak badira ere, tartean dira independenteak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-



Tolosaldeko hogeita lau udal ez daude ados aldundiak hartu duen erabakiarekin. E. MAIZ

Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa eta Zizurkil.

Lehenik eta behin, «atzera bota dezala UFFF bueltatzeko onarturiko erabakia», eskatu dute. Bigarrenik, «2020ko aurrekontu aurreikuspenak bere horretan mantentzea udalarentzat», azpimarratu dute. Hirugarren puntuan, zerga bilketaren jaitsieraren ondorioz, UFFFaren beherakada itzultzeko hiru urte-

ko epealdia ezartzea proposatu diote, «2021ean hasita, inongo interesik gabe». Bukatzeko, azken proposamena, «Gipuzkoako Foru Aldundiak 20 milioiko diru laguntza bat bidera dezala udalera Covid-19aren krisiak sorturiko gain kostuak arintzeko».

Alkizako alkate den Inaki Iratzabalbeitia, esaterako, herrien egoera bereziak aintzat hartuz ditzala eskatu dio, «batez ere industriarik ez duten landa herriena. Ez dut konpartitzen guztioi murrizketa ehuneko bera aplikatzeari». Eta, aldi berean, beharrez-

koak diren gestio politikoak egin ditzala eskatu dio, «udalen egoera ekonomikoa eragozten eta mugatzen duten 2/2012 Lege Organikoak ezartzen dituen baldintzak malgutzeko».

Eneko Maior Orexako alkate eta EH Bildu Gipuzkoako koordinatzailea da. «Orexako Udalaren kasuan, diru sarreraren %80 da foru funtsa. Erabat kolokan jartzen du erabaki honek gure egoera finantzarioa. Zerbitzu publiko guztiak kolokan jartzen ditu aldebakarreko erabaki honek», dio. Proposamenaren harira,

«zuzenean erantzun zaigu ezezko borobila», esan du. «Ezinezkoa dela proposamen hori egikaritzea, erantzun dute, azalpen gehiago eman gabe. Negoziaketarako ate guztiak itxi ditu foru aldundiak, eta ez du ezer jakin nahi udalekin». Aldundiaren jarraera «erabat arduragabea» iruditzen zaiela adierazi du Maiorek. «Foru aldundiak udalen babesle izan beharko luke, eta ez udalen erasotzaile».

PSE-EE ERE AURKA

PSE-EE alderdiko Larraul eta Berrobiko udalak ere ez dira ados aldundiak hartu duen erabakiarekin. Maite Arana Larraulgo alkatea haserre agertu da erabakiarekin: «Gipuzkoako Finantzaren Lurralde Kontseilua deitu behar zen aipatutako akordioa onartu aurretik, eta are ezinbestekoagoa zen egoera honetan».

Aranak ere landa eremuetako udalerrien egoera jarri du mahai gainean: «Gure ezaugarriekin sentsibilitatea izateko eskatzen dugu. Larraulgo foru funtsa aurrekontuaren %72 da gutxi gorabehera, eta horrek egoera zailean uzten gaitu». Aldiz, eskua luzatu die laguntzeko, «herritarrendandik hurbilen dagoen planotik beharren ikuspegia emanez».

Patxi Ruiz euskal presoari elkartasuna adieraziz

Erredakzioa

Patxi Ruiz euskal presoak gose eta egarri greba abiatu zuen maiatzaren 11, espetxeko zuzendaritzak eginiko mehatxuak sa-

latzeko. Ez da euskal presoak mehatxuak jaso izana salatu duen lehen aldia. Bederatzigarren eguna du gaurkoa gose eta egarri greban.

Tolosaldean ere Ruizen egoera

salatu nahi izan dute, eta elkartasuna adierazi diote. Pasa den ostiralean Ibarako plazan egin zuten elkarretaratze jendetsua, eta igandean, Tolosan manifestazioa egin zuten.

Euskal preso politikoa lau egun pixarik egin gabe dagoela azaldu zuten igande arratsaldeko mobilizazioaren hasieran, eta horrez gain, giltzurrunetako mina sentitzen duela informatu zuten: «Hala eta guztiz ere, hasitako borrokarekin aurrera jarrai-

tzeko asmoa berretsi du». Patxi Ruizen borroka horrekin bat eginaz Triangulotik abiatu zuten manifestazioa egoera salatuzko, eta Euskal Herria plazan bukatu zuten.

Bi ekimenak distantziak mantenduz egin zituzten.

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN

URTEKO BILKURA NAGUSIA

Eguna: 2020ko maiatzaren 21a, osteguna

Ordua: 18:00

Bilkura **TELEMATIKOKI** egingo da

Izena emateko: www.galtzaundi.eus

Gai-ordena:

- 2019ko memoria eta balantzearen onarpena
- 2020ko egitasmoa eta aurrekontuaren onarpena
- Zuzendaritza Batzordearen aurkezpena eta onarpena
- Galderak eta eskaerak

Kike Amonarriz Gorria, Galtzaundi E. T.
Tolosan, 2020ko maiatza



Igandean manifestazioa egin zuten Tolosan. A. IMAZ



ATARIA

«Egoera konplikatu bat izan daiteke aukera bat erretzeari uzteko»

MAIDER SIERRA ARANA PSIKOLOGOA

Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak, eskualdeko beste hainbat erakunderekin batera eta maiatza osoan zehar, tabakoaren kontsumoa murrizteko kanpainaren barruan argazki lehiaketa bat egingo du Instagramen

Jon Miranda Zizurkil

Aurten, halabeharrez, eta osasun egoerak horretara behartuta, bestelako ekitaldi publikorik ez dute la egingo esan du Maider Sierra Arana (Zizurkil, 1978), Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarte-ko psikologo eta prebentzio arloko arduradunak.

Zuek ere ari al zarete elkartean egoera berrira moldatzen?

Bueno, bizitza ezberdin honetan murgilduta gaude eta egokitzen ari gara. Prebentziotik lan egiten dugunean gure esparrua komunitatea da, kalea da, ikastetxeak dira. Momentu honetan guzti hori mugatuta dagoenez, etxetik

ari gara lanean, buru-belarri. Ahalik eta zerbitzu onena, kalitatezkoa emateko asmoz ari gara. Baina bai, arraro doa.

Osasun krisialdiak iraun duen bitartean, gaixo onkologikoei ez zaizkie tratamenduak eten. Ezohiko egoeran baino cutsi zaio normaltasunari?

Bai, saiatu dira behintzat. Ez da erraza izaten, beldurra ere bada-goelako pazienteen aldetik. Oso premiazko ez ziren interbentzioak bai etenda geratu ziren une batean, baina azken asteetan berriz ere heldu zaie horrelakoei. Gizarte guztian gertatu den bezala, minbizia duten gaixoengan eta ingurukoengan ere, denbora au-

rrera joan ahala ezinegona handitzen joan da. Nahiz eta tratamenduek jarraitu duten, beldurrak eta gaizki egonak ugaritu egin dira eta guk nabaritu dugu hori elkartean. Sufrimendua handitu egin da egoera honetan.

Aholkularitza eta babes lana egiten duzue zuek, nagusiki. Nola moldatu zarete zuen zerbitzuak eskaintzeko?

Gure elkarteko onuradun gehienak, gaitza dutenez, COVID-19az kutsatzeko arriskua duten taldeen barruan sartu dira, eta hortaz, hasieratik bagenekien ezingo genuela arreta zuzena segurtasunez eman. Beraz, etxeetatik jardun dugu. Gaur egungo teknologiek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz, bideo-konferentzien bitartez egiten ditugu bakarkako jarraipenak eta baita taldeko terapiak. Nik erretzeari uzteko taldearekin *online* jarraitzen dut. Ahal dugun moduan, bestela telefonoz, baina guregana jo duten guztiei arreta eskaini diegu. Gure lana areagotu egin da krisiarekin. Egia da, egoera honetan gure zerbitzuak zabaldu egin ditugula. Nahiz eta minbizia ez eduki, CO-

VID-19a eduki edo gaitzaren ondorioz senide bat galdu ondoren dolu prozesua bizi duten pertsonak ere lagundu nahi izan ditugu. Iruditzen zitzaigun garrantzitsua zela bertan egotea eta guk genuen esperientzia hori baliatzea. Lanez lepo gabiltza bai, baina molestatzeko beldurrez ez dadila jendea deitu gabe geratu, behar den tartea aterako dugu haiekin egoteko.

Beldurra sumatu duzu zuk egunotan?

Bai. Etxeratu behar izan genuenean eta baita duela pare bat aste umeak kalera ateratzeko baime-na izan zutenean ere. Kalera ateratzen hasi garenean ere beldur handia nabari da inguruan. Gure onuradunek komentatzen digute, beldurra eta ziurgabetasun handia sentitzen dutela, gaitz berri bat delako, ikusten ez dena. Beldurra areagotu egiten da COVID-19az gainera beste gaixotasunen bat presente badago, minbizia kasu. Etxe berdinean norbait isolatu beharra eta ondorioz minbizia duen pertsona ezin zaindu izatea ere tokatu zaie zenbaiti. Egoera ezberdinak ezagutu ditugu aste hauetan.

Prebentzioa, ikerketa eta osasun publikoaren beharra agerian geratu da krisi honekin.

Bai eta horiek izan dira gure elkartean oinarrian izan ditugun zuta-beak, orain inoiz baino ageriago geratu direnak. Gaixotasun bat eduki nahi ez badugu prebentzioa landu behar dugu eta hori argi geratzen ari zaigu orain koronabirusarekin.

Prebentzioaren arloan eragiteko lan talde bat osatua duzue eskualdean aspalditik.

Minbiziaren Aurkako Gipuzkoako Elkarte, Amasa-Villabona eta Tolosako udalek, Tolosaldeko ESIak, Asuncion klinikak eta Tolosaldea-Goierriko Osasun Saileko kideak modu koordinatuan aritzen gara aspalditik. Gure lana egiteko modua da hori, koordinazioan. Tolosaldea *Kerik eta zigarrorik inik gabe* proiektua daramagu elkarrekin, adibidez.

Uste duzue tabakoaren kontsumoa areagotu egin dela konfinamenduan?

Gure etxeak bihurtu dira eskola, gimnasio, taberna... lehen etxeak kerik gabeko espazioak bihurtzen ari ziren eta orain egoera horri buelta ematen ari zaiola sumatzen dugu. Nerabeak, akaso lehen gurasoen aurrean erretzera auzartzen ez zirenak, hasi egin dira egun hauetan. Egoera hau ez genuen alperrik galdu nahi, aukera bat delako gauza hauei buruz hitz egiteko eta erretzeari utzi nahi dionari laguntzeko.

Sozialki erretzen duenik ere

‘EZ ERRETZEKO ZURE ARRAZOIAK’ INSTAGRAMEN

Nerabeekin askotan egiten dugun galdera da «Zergatik erretzen duzu?» baina alderantziz egitea proposatzen du Sierrak. «Zergatik erabakitzen duzu ez erretzea? Martxan jarri dugun lehiaketarekin arrazoi horiek denak agerian jarri nahi ditugu».

Instagrameko perfila publikoa edukiz gero, argazkia publikatu eta #ezerretzekozurearrazoiak traola erabili behar da parte hartu ahalizateko. Intragamik ezean 667 1136 32 telefonora WhatsApp bat bidali daiteke edo tolosaldea@aecc.es helbidera bestela bidali daiteke argazkia. Maiatzaren 24ra arteko epea jarri dute eta gero saridunaren izena, Tabakorik Gabeko Nazioarteko Egunean egingo dute publiko, maiatzaren 31n.

Argazki irabazleak Smartwatch bat eramango du. Aurten ez dute sari banaketa ekitaldi publikorik egingo osasun egoerak ez duelako baimentzen.

bada. Espazio horien faltan aukera sortu liteke erretzeari uzteko?

Bai. Aspektu hori adierazten saiatzen gara gu. Konfinamenduaren lehen asteetan antsietate handiak bizi izan ditu jendeak eta horrek eragin du kontsumoa handitzea. Baina egia da, beste askorentzat aukera paregabea izan da. COVID-19aren aurrean babestuago egoteko modu bat delako eta erretzera bultzatzen zituen estimuluak dagoeneko ez dituztelako eskura. Aukera baliatu dute. Egoera konplikatu eta arraro bat izan daiteke aukera bat erretzeari uzteko.

Bolo-bolo ibili da informazio hori komunikabideetan. Zuek zein iritziz duzue nikotina COVID-19aren aurrean aldagai babeslea dela esaten duten informazioez?

Ikusi behar da ikerketa horiek zer nolakoak diren. Argi dugu nikotina ez dela inoiz babesle bezala ikusi behar, osasunarentzat sustantzia kaltegarria baita. Elkartean adituekin bilerak egin ditugu eta ez gaude batere ados ikerketa horrekin. Informazio horien atzean askotan interesak egoten dira eta pentsatzen dugu benetan osasun aldetik astakeria litzatekeela horrelako gauzak zabaltzea. Dependentsia sortzen du nikotinak eta kalte handiak dakartza. COVID-19arekin ere argi geratu da: geroz eta osasuntsuago egon, orduan eta hobeto egiten zaiola aurre gaitzari.

Imanol Garcia Landa

Paula Del Pozo (Alegia, 2002) eta Asier Mujika (Andoain, 1990) triatloilariak ahal duten moduan aurre egiten ari dira osasun larrialdiak ezarritako konfinamendu neurriei. Del Pozok lau garren urtea du Saltoki Trikidetak taldean eta aurten Europako Kopan parte hartzeko asmoa zuen. Mujika Ibarra bizi da, eta seigarren denboraldia du Tolosaldeko Triatloi Taldean. Horrez gain, Del Pozoren entrenatzailea ere bada.

Nola ari zaizue eragiten konfinamendu egoera triatloi denboraldian?

Asier Mujika. Nire kasuan ez du gehiegi baldintzatu. Konfinamendua hasi baino bi aste lehenago osasun arazo bat izan nuen, pneumotorax espontaneo. Ezin nuen inolako esfortzurik egin eta etxean egon behar nuen, eta esan daiteke nolabait egokitzen hasi nintzela konfinamenduari. Horrek hankaz gora jarri zizkidan denboraldi guztiko helburuak, ez nekielako noiz berreskuraturiko nintzen. Azkenean denbora tarte hau beste entrenamendu mota batzuk egiteko erabili dut. Hasiera batean ezin nuen ezer egin eta korrika egin beharrean, prebentzio lan batzuk, malgutasuna eta urtean zehar normalean entrenatzen ez ditudan beste gauza batzuk entrenatzen aritu naiz.

Paula Del Pozo. Denboraldia hasita geneukan, eta duatloian Espainiako Txapelketa egin geneukan. Itxialdi hau hasi eta hortik hamar egunera Espainiako Txapelketa bat nuen, eta horren ondoren zazpi egunera triatloian Europako Kopako proba bat. Baina bertan behera geratu da guztia.

Nola joan zitzaizun duatloiko Espainiako Txapelketa hori?

P.D.P. Oso ondo joan zen, espero genuena baino askoz hobeto. Taldekako txapelketa zen, elite mailan, eta ni 16. geratu nintzen eta taldeka Espainiako txapeldunak. Orain denboraldi bikain horrekin jarraitzeko gogotsu geunden.

Aurrera begira probaren bat egiteko aukerarik badago?

A.M. Panorama zaila dago, ikusita zer higie-ne neurri hartu behar diren. Ekaina alderako planteatuta zeuden proben gehiengo atzeratu egin da iraila eta urria aldera, baina ez dakit gero gauzatzeko moduan egongo diren. Espainiako Federazioak orain gutxi bidali zigun triatloi bateko antolaketan jarraitu beharreko protokoloa, eta egia esan, nahiko

«Igerilekura itzultzen garenean, nahiko gogorra egingo zaigu»

PAULA DEL POZO ETA ASIER MUJIKA TRIATLOILARIAK

Triatloi bat antolatzeak berez du zailtasuna, eta aurrera begira ezarri daitezkeen neurriek gehiago konplikatu dezakete. Del Pozok eta Mujikak, halere, espero dute aurten probaren batean parte hartzea.



Asier Mujika, etxean entrenatzen. Eskuinean, Paula Del Pozo, Alegia inguruko errepideetatik entrenatzen. ATARIA



konplikatua da. Berez, triatloi bat antolatzeak nahiko burohauste dauka, eta orain, higie-ne eta segurtasun neurri hauekin oraindik eta gehiago konplikatzeko da.

Ezta proba edo txapelketa garrantzitsuren bat ere?

A.M. Egutegia oraindik geratzen da. Adibidez, Paularentzat, triatloia olinpiar distantziaren Espainiako Txapelketa irailean da. Ikusi beharko da pandemia honek nolako bilakaera duen. Egia da esperantza hori badaukazula, eta helburu bezala entrenatzen jarraitzeko motibazio bat behar dela. Pentsatu nahi dugu irailean eta urrian lehiatzeko moduan egongo garela.

Zer helburu zenituzten berez denboraldi honetarako?

A.M. Normalean, helburu nagusi bezala Zarauzko Triatloia izaten dut. Berez ekainean egitekoa zen, eta irailera atzeratu dute. Baina horretan parte hartzeko zozketa bidez banatzen dira dor-

tsalak, eta aurten taldeko inori ez zaio egokitu. Orduan, EAEko zirkuituko probak, Gipuzkoa eta Bizkai aldean egiten direnak, eta Senpere eta Aritzalekuko probak geratzen zitzaizkigun.

P.D.P. Denboraldi hasierako Europako Kopako txapelketa hori zen helburuetako bat. Bertara joateko babesleak bilatu behar izan genituen. Tolosa Kirol Medikuntzak eta Alegisportek beren babesa eta laguntza eskaini ziguten, eta oraindik ere, ahal duten moduan, horrela egiten jarraitzen dute. Bestalde, Espainiako Txapelketa izango zen helburu garrantzitsuenetako bat. Aurten nire lehen urtea da junior kategorian, eta hor 18 eta 19 urtekoak gaude. Ea posible den txapelketa hori egitea. Podiumean sartzea zaila izango litzateke, baina amesten jarri gero, emaitza polit batekin etxera bueltatu ahalko ginela uste dut.

Aurtengo urtean ze beste emaitza lortu dituzue?

P.D.P. Duatloian lehen aipatutakoa izan zen lehenengoa eta azkenekoa, eta horrez gain, krosetako denboraldi osoan parte hartu nuen. Horretan bigarren postua lortu nuen Euskadiko Txapelketan, eta nazioarteko probetan sailkapen onak izan nituen.

A.M. Osasun arazo horregatik ezin izan dut ere duatloietan parte hartu, martxoan hasten baitira. Bestela, herri krosetan parte hartzen dut entrenamendu moduan.

Iazko urteari begiratuta, ze balantze egiten duzue?

A.M. Helburua Zarautz izan zen, eta ez nuen esperotako maila eman, baina orokorrean denboraldi polita izan zen, bai emaitzen aldetik, eta baita asko gozatu nuelako. Adibidez, Senpereko triatloia irabazi nuen. Eguraldi txarra zelako, moldatu egin zuten eta bizikletako zatia kendu zuten eta duatloia bihurtu zen. Tena Bailarako triatloira, Jakan, normalean kuadrillan joaten

gara asteburu pasa ere egiteko. Bertan hirugarren geratu nintzen, eta oso gustura. Horrez gain, Aritzalekuko triatloian seigarren bukatu nuen; oso polita izaten da, eta asko gustatzen zait. Bestetik, EAEko zirkuituan parte hartu nuen, baina hor maila oso altua da, eta emaitza onak lortzea kosta egiten da.

P.D.P. Espainiako Txapelketan laugarren postua lortu nuen, eta hurrengo eguneko Akuatloi Txapelketan zazpigarren postua egin nuen. Hemengo zirkuituan ez nuen parte hartu, baina bai Aritzalekuko triatloian, Asier bezala, eta bigarren postua lortu nuen sprint modalitatean.

Nola ari zarete entrenatzen?

A.M. Konfinamendua hasi zenean, Paulari dagokionez, hasieran planifikazioa mantendu nahi nion. Txapelketa garrantzitsuenak, Espainiakoa, ekainean genuen, eta ahal zen sasoi onena mantentzea zen asmoa. Gero, egoera hau luzerako zihoala ikusterakoan, planifikazioa moldatu egin dugu eta egoera berrira egokitu. Helburua sasoi mantentzea da, eta konfinamendua bukatzen denean, egutegi aldetik zer panorama dagoen ikusi eta horren arabera estutu gehiago, edo bestela hanka altxa eta hurrengo denboraldira begira jarriko gara. Nire aldetik, etxean bizikleta estatikoa dut eta horri etekin pixka bat atera diot.

P.D.P. Nik arrabilean ordu batzuk pasa ditut. Indar zirkuituak egin ditut, luzapenak, eta igeriketa simulatzeko gomak erabili ditut. Garaje txiki bat daukat eta korrika egin ahal izan dut. Orain, atea ireki dizkigutela, herri korrika egiten dut, eta bizikleta ere hartzen dut.

Zuen kasuan hiru kirol praktikatzeko dituzue. Nola eragingo dio egoera berezi honek zuen sasoiari?

A.M. Eragina izango du bai. Esaterako, igeri egin gabe sentsazioak galdu egiten dira, eta bi hilabete igerileku bat ukitu gabe egoiteak bere ondorioak izango ditu. Igerilekura itzultzen garenean, nahiko gogorra egingo zaigu. Niri, batez ere. Paulari gutxiago, igeriketarik dator eta teknikoki abilezia handiagoa du. Ni lehenengo egunetan gehiago ariko naiz ur azpitik ur gainetik baino.

P.D.P. Asierrek dioen moduan, igeriketarik dator, eta ez dut uste hainbeste zailtasun izango ditudanik, baina edukiko ditut. Dauzkazun sentsazioak galdu egiten dituzu, eta gero bi hilabete miraririk ezin da egin. Azkenean, denok asko sufrituko dugu.

Etenaldiak saria ekarri du

Tolosala Iurrek areto futboleko Hirugarren Mailan jokatu du datorren denboraldian; ilusioz daude klubeko kideak eta lanean ari dira igoerak suposatuko duen esfortzu ekonomikoari aurre egiteko

Imanol Garcia Landa Tolosa

Aurtengo kirol denboraldia historiara igaroko da COVID-19a dela-eta ezarritako alarma egoerarengatik, baina areto futboleko Tolosala kirol elkartearentzat are bereziagoa izan da. Batetik, mutilen lehen taldeak, Tolosala Iurrek, Hirugarren Mailara igotzea lortu du. Bestetik, mutilen bigarren taldearentzat eta emakumezkoen taldearentzat lehen denboraldia izan da.

Ligaren etenaldia gertatu aurretik, Tolosa Iurre taldea Euskal Ligako sailkapenaren bigarren postuan zegoen, eta behin liga erregularra bukatutzat eman ondoren, zuzenean Hirugarren Mailara igotzea lortu dute. «Denboraldi hasierako helburua igotzea zen, eta dudarik gabe, modu berezian lortu dugu igoera», esan du Martin Lakunza zuzendaritzako kide eta Tolosala Iurre taldeko jokalariek. Ez zuten hasiera erraza izan, partidak irabaztea kosta egin zitzaielako. Baina jokoa hobetu, eta etenaldia gertatu aurretik sailkapeneko bigarren postura igotzea lortu zuten. Bere mailan lehenengo biak zuzenean igoko zirela zehaztuta zegoen denboraldiaren hasieratik, eta hori errespetatu dute federazioek. «Igotzea saria da, baina, aldi berean, gazi-gozoa, kantxan egongo bagina gusurago egongo ginatekeelako. Baina dagoen egoera izanik, ezin gara kexatu».

Aurten taldeak bigarren urtez jokatu du Euskal Ligan, eta mailaz igotzeko helburua zuten.



Ezkerreko irudian, Tolosala Iurre taldeko kideak. Eskuinekoan, Tolosala B taldeko kideak. ATARIA



Tolosala Orbelak taldearen partida bat. ATARIA

«Aurrekoa lehen urtea izan genuen Euskal Ligan, eta partida onak izan genituen baina partida batzuetan ez genuen maila ona eman», esan du Lakunzak. «Aurten, oinarriarekin jarraituz eta errefortzuekin, ikusi genuen talde ona zegoela, eta giro ona genuela, eta aukera aprobetxatu egin behar genuela esan genion geure buruari».

Ilusioz hartu dute Hirugarren Mailan aritzea, Lakunzak azaldu

duenez: «Nahiz eta eskualdeka jokatu, Espainiako Ligaren barruan sartzen da maila hau. Ez da ahaztu behar Tolosala orain dela hamar urte kuadrilla batek sortu zuela, eta lagunarteko giroan. Pixkanaka hazten joan gara, helburuak betetzen eta horregatik dago ilusio handia, gure lehenengo aldia delako Hirugarren Mailan, eta talde gaztea dugulako».

Kirol maila igo egingo da, eta

alde ekonomikoaren aldetik ere esfortzu handiagoa suposatuko dio taldeari. «Babesleei esker lortu dugu aurten kirol elkarte sortzea eta beraien laguntzarik gabe hau dena lortzea ez zen posible izango», esan du Lakunzak. «Orain beste pauso bat eman behar dugu, bai guk eta baita babesleek ere. Ahal duguna egingo dugu, eta lanean ari gara helburuak bete ahal izateko».

HAZTEN JOATEA

Etenaldiaren garaian, eta denboraldiarekin zer gertatuko zen jakin arte, entrenamenduak egin aritu dira etxetik. Ez zuten espero hain luze joango zenik egoera, eta hainbat Internet aplikazio bitartez egin dituzte entrenamenduak, Julen Lizaso prestatzaile fisikoaren zuzendaritzapean. Etxetik ateratzeko aukera izatean, etxe barruko entrenamenduekin batera mendira joanez eta korrika eginez sasoi mantentzen saiatu dira.

Aurrera begira, lanean ari dira

klub bezala hazten joateko. «Aurreko urtean pausoa eman genuen kirol elkarte bezala eratzeke, eta txikienei areto futboleko aritzeko aukerak eman nahi dizkiegu», esan du Lakunzak. «Aurreko urtean torneo bat antolatu genuen herriko txikienekin eta arrakasta handia izan zuen. Ea aurten ere aukera dugun horrelako zerbait antolatzeko».

Kluba hazten joateko pauso garrantzitsuak aurtengo denboraldian eman zituzten Tolosala-koek. Mutilen bigarren taldea sortu zuten, Tolosala B, eta emakumezkoen taldea, Tolosala Orbelak. «Emaitzei dagokionez ez da denboraldi oso ona izan, baina oso kontentu gaude, gure helburua haztea zelako. Bai mutilen bigarren taldean bai emakumezkoen taldean giro oso ona izan dute, eta kluba gustura dago emandako pausoarekin», zehaztu du Lakunzak. Datorren denboraldiari begira ere bi talde horiek jarraituko dutela gaineratu du.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2020KO MAIATZAK 19
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gazteku, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ZORION AGURRAK



Gure maitasun jarrera
eraman nahian aurrera
birusagatik ez dugu egingo
gurean atzera
parean dugu aukera
bultza guztiok batera
lehenbailehen itzuli
zaitezten preso
guztiak kalera

Urte askoan Emilio!

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·

ASTEARTEA 19

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eguraldi ira-garpena lker ibarluzearekin, eskualdeko berriak, Galtzaundiren hitzez hitz tartea Igor Agirrerekin, Aintzane Artolaren errezeta eta Iñaki Zubeldia kale kantoitik.

11:00. Desafioa. Herri kirolak, Joxe Angel Sarasolarekin.

14:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Kantazgora. Eskualdeko musikarien proposamenekin osatutako musika saioa.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

16:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Amets yoga estudioa

23:00. Elkarriketap

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez alias. Kale Berria, 34.
943 69 1130.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6.
943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro eguzkitsua eta egonkorra izango dugu. Goizean eta azken orduetan behe-hodei batzuk ikusiko ditugun arren, gainontzeko orduetan giro eguzkitsua nagusituko da. Haizeak goizean aldakor joko du, eguerditik aurrera ipar-ukitua hartuz eta tenperaturak koska bat gora egingo du, maximoak 22 eta 23 gradu artean errendituz.

Bihar. Giro nahiko beroa izango dugu. Egun osoan zehar zerua ia erabat garbi egongo da eta giro eguzkitsua zozatu ahalko dugu. Haizeak ipar/ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura maximoak koska polita egingo du gora, aurreko egunarekin alderatuz, lau gradu inguru. Egunekeo erdiko orduetan 26 eta 27 gradu artean joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA
2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484